

**EUSKADIKO TRIKITILARI
GAZTEEN TXAPELKETAREN
XXXVIII. EDIZIOAREN
FINALA, ZEANURIN
ABUZTUAREN 15ean**



2018. URTEKO TXAPELKETA ZEANURIN

Datorren **abuztuaren 15ean**, asteazkena, 18:00etan, **EUSKADIKO TRIKITILARI GAZTEEN TXAPELKETAREN XXXVIII**. Edizioaren finala egingo da berrero ere Zeanurin.

Azkenengo urteetan bezala, final honetan parte hartuko dabena 6 bikoteak beharrezkoa bada, aurretik egingo dan kanporaketetan aukeratuko dira.

Lehiaketan parte hartzeko baldintzak:

1. Soinulariak 26 urtetik beherakoak, hau da, 1992 geroztik jaiotakoak.
2. Fadero joleak, 26 urtetik beherakoak, hau da, 1992 geroztik jaiotakoak.
3. Musika tresnak: soinu txikia eta fanderoa.

Izena emoteko epea: uztailaren 2tik 20rarte. Izena emotea Zeanuriko udalean bertan, telefonoaren bidez edo udala@zeanuri.eus helbidera idatziz egin ahal izango da. Telefono zkia: 94-673.91.46.

Jo beharreko piezak:

- Finalean 4 pieza: 1go jotea (4 koplara mugatuta); 2. Porrusaldea (4 koplara mugatuta); 3 Fandangoa; 4. Arin-arina.

Sariak:

- Lehenengoari: 400 euro eta trofeoa.
- Bigarrenari: 320 euro eta trofeoa.
- Hirugarrenari: 275 euro eta trofeoa.

Sari berezia bikote bizkaitar onenari: 150 euro eta trofeoa.

Dietak:

Kanporaketan parte hartzen dabena bikote bakoitzak: 75 euro.
Finalera heldu eta saririk lortzen ez dabena: 135 euro.